

Haurdunaldia, amatasuna, gurasotasuna
LIZENTZIAK ETA BAIMENAK


HAURRESKOLAK **PARTZUERGO** **PUBLIKOA**

haurreskolak

0123=0€

unibertsala doakoa euskalduna kalitatekoa
inklusiboa eta hezkuntza sailean integratua

LAB



HAURDUNALDIKO ARRISKUAGATIKO PRESTAZIOA

- > Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio zerbitzura (943821496) deitu eta haurdunaldiaren berri eman.
- > Langileak haurdunaldiko arriskuagatiko prestazioaren eskaera haurdunaldiko edozein astetan eska dezake. Baloraziorako gida berria argitaratu da eta arrisku biologikoek ere haurdunaldian eragina dutela jaso da. Errubeola, elgorria, parotiditisa, zoster-bari-zela, parvovirus b19 eta zitomegalobirusa hain zuzen.
- > Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuak, langilea IMQ prevencion-eko zentro batera bideratuko du balorazio serologikoa egin ahal izateko. Prebentzio zerbitzua izango da hitzordua lotzen duena. Langilea aurretik aipatutako arrisku biologikoen aurrean immunizatuta badago, azterketa fisikoa egin beharko du Mutaliako zentroetan. Hitzordua duen egunean alta egoeran egon behar da langilea. Honek, 20. astetik aurrera prestazioa eskuratzeko aukera emango dio.
- > Langileak, hurrengo dokumentazioa osatu eta Mutualiara lehenbailehen bidali behar du: azaltzen duen eranskin bat sartu da.
 - a) M 31.06.02 Osasun Zerbitzu Publikoko Ziurtagiria. Lehen arretako sendagileak edo ginekologoak bete beharrekoa.
 - b) M 31.06.01 Ziurtagiri medikoaren eskaera haurdunaldiko edo edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik. Langileak bete beharrekoa.
 - c) NANaren fotokopia.
 - d) IMQ prevencion-eko zentro batean egindako balorazio serologikoaren emaitzak.
- > Langileak, aipatutako dokumentazioa, Mutualiako helbide elektroniko hauetara bidali beharko du:
 - Araba: prestacionesvi@mutualia.es
 - Bizkaia: erandioprestaciones@mutualia.es
 - Gipuzkoa: prestacioneseconomicasgipuzkoa@mutualia.es
- > Dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, Mutualiako medikua prestazio eskatzailearekin harremanetan jarriko da hitzordua emanez. Hitzordua duen egunean alta egoeran egon behar da langilea. Medikuak gutun baten bidez, jakinaraziko dio eskatutako haurdunaldiko arriskuagatiko prestazioa onartua izan den edo ez.

- > Prestazioa jasotzeko eskubidea onartzen denean, langileak hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:
 - M 31.06.04 Haurdunaldiko edo edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik prestazio ekonomikoaren ordainketaren eskaera.
 - Langileak M 31.06.01 eta M 31.06.04 betetzerakoan, kotizazio kontuaren kodea jartzen duen atala ez du bete behar.



ERDITZE OSTEAN JARRAITU BEHARREKO PAUSUAK

- > 1. Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzura (prebentzioa@haurreskolak.eus) jaiotza ziurtagiria bidali.
- > 2. **Epaitegira joan** ospitalean ematen duten jaiotze agiriarekin, familia liburuarekin (ezkonduta baldin bazaude, bestela epaitegian bertan eskuratuko duzu) eta gurasoen errolda agiriarekin. Epea: haurra jaio eta 24 ordu pasatzen direnetik 8 egunera. Gaur egun ospitale batzuek bideratzen dute tramitazio guztia.
- > 3. **Amatasun lizentzia eskatu**: Gizarte Segurantzaren norberak aurkeztu beharreko dokumentazioa; Enpresak bete beharreko inprimaki ofiziala, gaixotasun bajaren alta, Familia liburuaren originala eta kopia, jaiotze agiriaren originala eta kopia, Nortasun agiriaren originala eta kopia. Epea: haurra jaio eta 20 egunera.
- > 4. **Haurraren osasun txartel indibiduala eskatu**: Udaletxean eskatu behar da haurraren erroldatze agiria. Ondoren, Gizarte Segurantzaren gurasoetako baten aseguruan sartu behar da haurra. Horretarako A1 eta P1 inprimaki eguneratuak bete behar dira. Gurasoen NAN edo familia liburuaren fotokopia atera eta guztia tokian tokiko anbulategian entregatu behar da.
- > 5. **Dirulaguntzak bideratu**: <https://www.euskadi.eus/informazioa/lana-eta-familia-ba-teragarri-egiteko-laguntzak/web01-a2famil/eu/>



AMATASUNA/GURASOTASUNA/ADOPZIO/HARRERA

- > **18 aste**ko lizentzia.
- > Bi aste gehiago haur bakoitzeko.
- > Bi aste adingabeak desgaitasunen bat izanez gero.

	Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa		
		2019/09/01etik aurrera	2020	2021tik indarrean
Oinarrizko araudiko nahitaezko zatia (erditu eta jarraian)	6 aste	2 aste	4 aste	6 aste
Oinarrizko araudiko borondatezko zatia	10 aste	6 aste	8 aste	10 aste
GKEak hobekuntza zatia	2 aste	10 aste	6 aste	2 aste

- > **Guraso bakarren kasuan, 24 asteko lizentzia. Dirulaguntzaren aldia zehazteko, 168 (24 aste) eta Gizarte segurantzaren araudiaren esparruan adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko kotizaziopeko prestazioa gisa diruz lagundutako egun kopuruaren arteko diferentzia kalkulatu beharko da.**
- > **Nahitaezkoa zatia**
 - Berehala hartuko da eta etenik gabe gozatuko da haurra jaiotzen den egunetik aurrera edo adopzioa, adopzio aurreko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala edo administratiboa ematen denetik aurrera.
- > **Oinarrizko araudiko borondatezko zatia, aste horiek honela hartu ahal izango dira:**
 - Etenik gabe baimenaldiko aste guztiak agortu arte. Derrigorrezkoa izango da kasu hauetan:
 - » Bi gurasoetako batek lanik egiten ez duenean.
 - » Adopzio, zaintza edo harreretan, haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.
 - Baimena zatika hartzen bada, asteka hartuko dira baimen zatiak, haurrak 12 hilabete bete arteko mugarekin, eta honela hasita:
 - » Ama biologikoa denean: nahi duenean, sei asteko nahitaezko atsedenaldia amaitutakoan.
 - » Beste gurasoa denean:
 - ama biologikoaren nahitaezko atsedenaldia amaitu eta gero, edo
 - ama biologikoaren edo beste adpotzaile edo zaintzailearen baimena amaitu eta gero (hobekuntza asteak barne)

- jaiotza-baimenaren ondoren ama biologikoak edo beste adoptzaile, zain-tzaile edo harrerako gurasoak eskatzen badu haurren edoskitze denbora lanaldi osoetan metatzea, denbora hori igarotakoan hasiko da gainerako baimen asteen kontateka.

*Baimena zatika hartzen denean, aste osoetan hartuko da. Baimen zati bakoitza hartzeko, gutxienez 15 egun baliodun lehenago eskatu beharko da.

> **Gobernu Kontseiluaren Erabakiak: hobekuntza zatiak**

- Hobekuntza zatia etenik gabe gozatu beharko da, eta berehala hartu beharko da oinarrizko araudiak emandako borondatezko zatia duen iraupena amaitzen denean.
- Hobekuntza hori etenik gabe gozatu beharretik salbuetsita geratuko dira, kontratuaren iraupena dela eta, etenik gabe hartu ezin dutenak; kasu horretan, kontratua eskuratu eta berehala jarraituko da baimenarekin, hau agortu arte, betiere haurrak hamabi hilabete bete aurretik.
- Adopzio/harrera kasuetan, denbora zenbatzen hasten da harrerari buruzko administrazio erabakia edo erabaki judiziala ematen denetik edo adopzioa eratu duen ebazpen judiziala ematen denetik aurrera.
- Adopzioa atzerian ematen bada, gurasoek adopzioa baino lehen, haurraren herrialdera joan beharko balute, baimena har dezakete, ebazpena jaso baino 4 aste lehenago arte. Gainera interesdunek gehienez 2 hilabeteko baimenaz gozatzeko aukera izango dute.



EDOSKITZEA

Baimen hau, langile publikoen eskubide indibiduala da, ezin izango zaio beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoari pasa. Baimena haurrak urte bat bete aurretik disfrutatu beharko da.

Etenik gabe hartutako baimen aldi osoa amaitutakoan, edo nahitaezko baimen aldia amaitutakoan zatika hartzea erabaki bada, aukera hauetako bat hautatu ahal izango da, aldatzeko aukerarik gabe:

- Lantokitik ordubete alde egitea, bi zatitan banatzeko aukerarekin.
- Lanaldi normala murriztea, kasu bakoitzean aplikatzekoa den akordioan edo lan hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
- Ordaindutako baimena hartzea, dagokion edoskitze denbora metatuta hartuz.

Nahitaezko baimen aldia amaitu aurretik eskatu beharko da, eta bakarrik hartu ahal izango da jaiotza, adopzio, zaintza edo harreragatiko baimena amaitzen denean, edo ama biologikoa ez den gurasoarena, edo haurra jaio denetik baimen horiek hartzen duten denbora igaro denean (18 aste oro har).

Baimen honen iraupena modu proportzionalean luzatuko da erditze, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harrera anitza denean.



DISFRUTATU GABEKO OPOR EGUNAK BERRESKURATZEA

- > Gogoratu, abuztuko egunak direla oporrak, beraz berreskuratu ahal direnak.
- > Bajan egondako egunak soilik berreskuratuko dira.
- > Alta hartu eta hurrengo egunetik disfrutatuko dira opor egun hauek.



3 URTERA ARTEKO SEME-ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA

- > Langileek eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitza zaintzeko.
- > Eszedentzia haur biologikoa, adopziokoak, adopzio aurretik hartuak edota harrera behin-behinekoa den kasuetan har daiteke. Epea, betiere, haurraren jaiotegunetik edo ebazpen judizial edo administratiboaren datatik aurrera zenbatuko da.
- > Denboraldi horretan langileak lanpostuaren erreserba izango du.
- > Epe hau, kontuan hartuko zaio antzinasunaren eta kotizazioaren ondoriotarako.
- > Eskaera Haurreskolak Partzuergoko pertsonal zerbitzura bideratu behar da, eszedentzia data hasiera baino 15 egun arinago.



ADINTXIKIKOAK ZAINTEKO MURRIZKETA

- > Langileak lanaldia murrizteko baimena eskatu ahal izango du bere ardurapean hamabi urtetik beherako adingabekoren bat badu.
- > Murrizketa hori lanegunaren zortzirena izango da gutxienez eta erdikoa gehienez, eta ordainsarien atal guztietan heineko beherapena ekarriko du honek.

- > Eskatera Haurreskolak Partzuergoko pertsonal zerbitzura bideratu behar da, murrizketaren hasiera data baino 15 egun arinago.
- > LAB Sindikatuak sinatutako Ordezkoen araudiari jarraituz, jardun murrizketa eskatu behar duten ordezkoei, jarduna murriztu ahal izateko kontratua indarrean sartu eta eskaria lehenengo 5 lanegunetan egiten bada, 5 lanegun igaro ondoren indarrean sartzeko aukera emango zaio.



EGOERA BABESTUETAN ORDEZKOEK PUNTUAK LORTZEA

- > LAB sindikatuak sinatutako Ordezkoen araudiari jarraituz, eskaintzen zaien ordezkapen aldia emandako zerbitzu alditzat hartuko da, baina zerrendaren baremazio/birbaremazioaren ondorioetarako bakarrik.
 - Baja medikoan egonda(arriskuko haurdunaldia bada), mutuatik prestazioa jasotzen bada edo amatasun/gurasotasun lizentzian egonda puntuatzen da.
 - 3 urtetik beherako seme alabak zaintzeko eszedentzian egonda.
 - 3 urtetik beherako seme alabak zaintzeko eszedentzia fiktizioan egonda. Hautagaiak, haurrak zaintzeko, haurrak hiru urte egin arte, ordezkapenak egiteko aldi baterako etena eska dezakete. Haurrak hiru urte egitean, itzuli beharko dira. Beti izango dute zerrendetara lehenago itzultzeko aukera. Itzultzeko eskatzen ez badute, hautagaiak zerrendatik kanpo geldituko dira.



EGOERA BABESTUETAN DAUDEN ORDEZKOEK UKO EGITEKO AUKERA

- A. Amatasuna: erditzen duenaren kasuan, ukoa haurdunaldiko seigarren hilabetearen eta erditzearen ondorengo hemezortzigarren astearen artean egiten bada, edo haurdunaldian eta edoskitzaroan arriskua egonez gero.

Erditu duena hiltzen bada edo informe mediko baten bidez ziurtatutako gaixotasun larria badu, besteak (bikotekideak) uko egin ahal izango die ordezkapenei, erditzea gertatu eta ondorengo hemezortzi asteetan.

Guraso edo tutore biek lan egiten badute, beste gurasoak edo tutoreak hilabete batez uko egiteko aukera izango du. Epe hori haurraren jaiotza egunetik hasiko da kontatzen.

- B. Gurasotasuna: ukoa gurasotasunagatik dituen 18 asteen barruan egiten bada; edo haurraren jaiotzagatiko baimen egunetan, dagokion hitzarmen kolektiboaren arabera, edo horrelakorik izan ezean, Langileen Estatutuan xedatu-takoaren arabera.
- C. Hautagaiek, haurrak zaintzeko, haurrak hiru urte egin arte, ordezkapenak egiteko aldi baterako etena eska dezakete (eszedentzia fiktizioa). Eskaera hori eginez gero, zerrendetan eutsiko zaie hautagaiei, ez besterik. Haurrak hiru urte egitean, itzuli beharko dira. Beti izango dute zerrendetara lehenago itzultzeko aukera. Itzultzeko eskatzen ez badute, hautagaiak zerrendatik kanpo geldituko dira. Bateriaezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Eskaera horiek gutxienez 15 eguneko aurreikuspenarekin egin beharko dira, eta iraupena gutxienez 15 egunekoa izan beharko da.
- D. Sei urte bitartekoen adopzioa edo etxean hartzea, dela adopzio aurrekoa dela behin betikoa, uko egitea adoptatu edo etxean hartu eta hurrengo edo aurreko hemezortzi aste baino lehen egiten bada. Epe hori bi aste luzatu daiteke haur bakoitzeko, haur bat baino gehiago adoptatu edo hartzen bada. Epe horiek guztiek etxean hartzeko ebazpen administratiboa edo judiziala edota adopzioa ematen duen ebazpen judiziala ematen denetik edo eman aurretik hasiko dira kontatzen.
- E. Hemezortzi asteko ukoa egin ahal izango da, halaber, sei urtetik gorako haur bat adoptatzen edo etxean hartzen bada, baldin eta ezgaituak badira, edota, egoera eta esperientzia pertsonalagatik edo atzeritik datorrelako, gizartean edo familian sartzeko arazoak badituzte (egoera hori gizarte zerbitzu eskudunek ziurtatu beharko dute).



PRESTAZIO HAU 1148/2001 ERREGE DEKRETUAN OINARRITZEN DA, BERTAN AIPATZEN DEN BEZALA, MINBIZIA EDO BESTE GAIXOTASUN LARRIREN BAT DUTEN HAURRAK ZAIN-TZEAGATIKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (CUME Legea)

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzeko lanaldia murrizten duten gurasoei, adoptatzaileei eta hartzaileei (adopzio aurrekoak edo etengabeak) murrizketa-egoera hori babestuko die prestazioak, betiere biek lan egiten badute.

Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio zerbitzura (943821496) deitu.

<https://www.mutualia.eus/eu/zerbitzuak/prestazioak/>

